



**JARDUKETA
BAKARTUEN
PROPOSAMENEN
BALORAZIOA**

6. BARRUTIA

ABANDO

DISTRITO 6

**VALORACIÓN DE
LAS PROPUESTAS
DE ACTUACIONES
AISLADAS**



6. BARRUTIKO (ABANDO) JARDUKETA BAKARTUEN BALORAZIOA

ABANDOTARRAK AUZOLANEAN AUZO-ELKARTEA

Auzoa: Abando

1. KONPONTZEA CONCHA JENERALAREN KALEAREN LEHEN ZATIAN (PEDRO EGUILLOR PLAZATIK HASITA) KONPONDU GABE GERATU DEN GALTZADA ZATIA

Kale horretako gainerako galtzada zatiak konponduta daude; etxadi horretako zati hori baino ez dago konpontzeke. Ikusi azalpen-dokumentua eta erantsitako argazkia.

Kokapena: Concha Jeneralaren lehen zatia (Pedro Eguillor plazatik hasita)

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

2. GALTZADA ZATI BAT KONPONTZEA PORTUKO MARKESAREN KALEAN, ARBIETO KALEAREN ETA PEDRO EGUILLOR PLAZAREN ARTEAN

Galtzada zati hori nahiko hondatuta dago: zulo batzuk ditu. Ikusi azalpen-dokumentua eta erantsitako argazkia.

Kokapena: Portuko Markesaren kalea, Arbieta kalearen eta Pedro Eguillor plazaren artean

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

3. ZOLADURA KONPONTZEA PONPA ETXEAREN INFORMAZIO-KARTELAREN AURREAN, RAMÓN DE LA SOTA KAIAN, ITSAS MUSEOAREN ONDOAN

Toki hori erakargarri turistiko bat da, baina lurzorua hondatuta dago; hain zuzen, eraikinari buruzko informazioa irakurtzera hurbiltzen diren oinezkoek estropezu egiteko arriskua dute. Ikusi azalpen-dokumentua eta erantsitako argazkia.

Kokapena: Ponpa Etxea, Ramón de la Sota kaia

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

4. BEHERAGUNEA EGOKITZEA ERREKAKOETXE KALEAREN ETA CONCHA JENERALAREN KALEAREN ARTEKO ELKARGUNEAN EGOKITZEKE GERATZEN DEN BEHERAGUNE BAKARREAN

Inguruko gainerako beheragune guztiek zoru pododaktila dute. Ikusi azalpen-dokumentua eta erantsitako argazkia.

Kokapena: Errekakoetxe kalea, Concha Jeneralaren kalearekiko elkargunean

- Obren balorazioa: **ONARTUA**





5. OSAGAIK GALDU DITUZTEN BARANDAK ETA FAROLA URDINAK
KONPONTZEA RAMÓN DE LA SOTA KAIAN

Kokapena: Ramón de la Sota kaia, Itsas Museoa

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Barandak konpontzen ari gara une honetan, eta farolen konponketa mantentze-lanak dira.
- *Oharra: Abisua pasako zaie mantentze-lanetakoei (Zerbitzuak).*

URIBITARTE ANAITASUNA AUZO-ELKARTEA

Auzoa: Abando

1. FAROLAK KALE-MAILARA JAISTEA URIBITARTE PASEALEKUAN, PÍO
BAROJA PLAZAREN ETA ISLETA KALEAREN ARTEKO ZATIAN.

Helburua da fatxadetako argi-kutsadura murriztea.

Aurrekontu nahikorik ez badago, etxebizitzarik ez duten eraikin bitan agian ez da beharrezkoa farolak jaistea.

Kokapena: Pío Baroja plazako eraikina 1. atariraino eta 1. atariko eraikina

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

2. LUMINARIA ERREAK ALDATZEA ETA BI FOKU JARTZEA METROPOLITAN
GIMNASIOAREN FATXADAREN LEHEN SOLAIRUKO LEIHOETAN

Foku bat jartzea fatxada apaingarriko lehen solairuko leiho karratu bakoitzaren parean, kale-edanean aritzeko eta pixa egiteko erabiltzen den eremu iluna argitzeko. Bi foku, lurrari begira, barruko fatxadaren zatia argiztatzeko. Luminaria apaingarri erreak aldatzea.

Kokapena: Metropolitan gimnasia sartzeko fatxada apaingarria.
Ikusi argazkia.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**



3. FATXADAKO ARGIAK KALE-MAILARA JAISTEA IBAÑEZ DE BILBAO KALEAN, ALBIA LORATEGIAREN ETA ZABALGUNE PLAZAREN ARTEKO ZATIAN.

Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea. Aurrekontu nahikorik ez badago, zenbaki bakoitiak egitea lehenesten da, etxebizitza gehiago baitaude.

Kokapena: Ibañez de Bilbao kalea, Albia lorategiaren eta Zabalgune plazaren artean.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

4. FATXADAKO FAROLAK KALE-MAILARA JAISTEA ASTARLOA KALEAN, COLON DE LARREATEGUI KALEAREN ETA KALE NAGUSIAREN ARTEAN.

Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea.

Kokapena: Astarloa kalea, Colon de Larreategui kalearen eta Kale Nagusiaren artean.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

5. FATXADAKO FAROLA KALE-MAILARA JAISTEA, COLON DE LARREATEGUI KALEAREN ETA ASTARLOA KALEAREN ARTEKO IZKINAN.

Kokapena: Colon de Larreategui kalearen eta Astarloa kalearen arteko izkina.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

6. FATXADAKO FAROLA KALE-MAILARA JAISTEA IBAÑEZ DE BILBAO KALEAN, PEDRO IBARRETXE KALEAREN ETA ACEBAL IDIGORAS KALEAREN ARTEAN.

Aurrekontu nahikorik ez badago, etxebizitza-eraikinetako farolak jaistea lehenesten da (eta bulego-eraikinetan daudenak ez jaistea), gauean argi-kutsadura murrizteko.

Kokapena: Ibañez de Bilbao kalea, Pedro Ibarretxe kalearen eta Acebal Idigoras kalearen artean.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

7. FATXADAKO ARGIAK KALE-MAILARA JAISTEA ZABALGUNE PLAZAN

Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea. Zabalgune plazako farolak kale-mailara jaistea proposatzen da. Plazaren birmoldaketa egiten denean kontuan hartu beharreko gai bat da.

Kokapena: Zabalgune plaza.

- Obren balorazioa: **EZETSIA**





- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Bestelako arrazoiak. Obretan dago (Zabalguneko aparkalekuaren eta plazaren obrak).
- *Oharra: Egoki iritziz gero, eskaera sail eskudunari bidaliko zaio (Mugikortasuna eta Jasangarritasuna), eta obraren xehetasunei buruzko informazioa eskatuko da.*

8. FATXADAKO ARGIAK KALE-MAILARA JAISTEA MÁXIMO AGUIRRE KALEAN.

Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea. Fatxadako farolak kale-mailara jaistea proposatzen da. Farola batzuk kale-mailan daude dagoeneko. Gainerakoak ere jaistea proposatzen dugu.

Obretako Sailari eskatzen diogu zehatz dezala aurkeztutako jarduketak gauzatzeko beharrezkoa den espaloiak handitzea. Galdera hori egin nahi dugu, zeren eta ulertzen baitugu, farolak jaitsita ere, espaloien zabalera mantendu egingo dela. Farolak jaisteko proposatzen diren kaleetako batzuek kutsadura akustiko handia dute, ostalaritza-lokaletako ateetan jendetza pilotzen baita. Espaloiak zabaltzean ez bada bermatzen irabazitako toki hori oinezkoentzat izango dela, auzotarrok hasierakoa baino egoera txarragoan egoteko arriskua dugu. Beraz, garrantzitsua da jakitea espaloien zabalera mantendu egingo den; izan ere, espaloiak handitzen badira, baliteke kutsadura akustikoa areagotzea, lokaletako ateetan jendea pilotzeko toki gehiago egongo baita, eta, hala izango bada, kasu batzuetan agian atzera egingo dugu gure proposamenean.

Kokapena: Máximo Agirre kalea

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Beste plan batzuetan sartuta dago.
- *Oharra: Rodríguez Arias kalearen hiriko proiektuaren 2. fasean sartuta dago (ez dago Auzokide Planean sartuta), eta proiektuak kale hauen espaloiak zabaltzea aurreikusten du:*
 - ✓ *Rodríguez Arias kalea (Recalde zumarkalea - Elcano kalea)*
 - ✓ *García Rivero Maisuaren kalea*
 - ✓ *Máximo Agirre kalea*
 - ✓ *Telesforo Aranzadi kalea*



✓ *Maria Diaz Haroko kaleko II. fasearen proiektua*

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso501320/es_doc/ind_ex.html

Auzoa: Indautxu

9. ZUHAITZAK LANDATZEA POZA LIZENTZIATUAREN KALEAN, ERCILLA KALEAREN ETA MARIA DIAZ HAROKO KALEAREN ARTEAN, TERRAZETAKO MAHAIRIK ETA AULKIRIK EZ DAGOEN ESPALOI ZATIETAN.

Kokapena: Poza Lizentziatuaren kalea, Ercilla kalearen eta Maria Diaz Haroko kalearen artean

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoa: Eremu bat da.

PP UDAL-TALDEA

Auzoa: Indautxu

1. ITURRI BAT JARTZEA ETXANIZ SUHILTZAILEAREN PLAZAN

Inguruko ikastetxeetako haur asko, adinekoak eta anbulatorioko pazienteak elkartzen dira bertan, eta plaza pasabide ere bada. Horregatik, komeniko litzateke iturri bat jartzea.

Kokapena: Etxaniz Suhiltzailearen plaza

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

2. EGUNERATZEA ETA MODERNIZATZEA POZA LIZENTZIATUAREN KALEA, GREGORIO DE LA REVILLA KALEAREN ETA AREILTZA DOKTOREAREN ZUMARKALEAREN ARTEAN (APARKALEKUAK KENDU GABE)

Kale hori eguneratu eta modernizatu behar da, aparkalekurik kendu gabe, aparkatzeko toki gutxi baitago inguruan. Eguneratzeko, proposatzen da zuhaitzak eta bankuak jartzea eta fatxadetako farolak kale-mailara jaistea, argi-kutsadura murrizteko.

Kokapena: Poza Lizentziatuaren kalea, Areiltza Doktoarearen zumarkalearen eta Gregorio de la Revilla kalearen artean

- Obren balorazioa: **ZATI BATEAN ONARTUA (ARGIAK BAKARRIK)**
- EZ ONARTZEKO arrazoa: Gainerakoa (zuhaitzak, bankuak...) ezin da egin espaloia handitzen ez bada, eta ezin da espaloia handitu aparkalekurik kendu gabe.



3. PLATAFORMA EDO OINEZKOEN BABESGUNEA KENTZEA JESUSEN BIHOTZA PLAZAN.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**

4. ESPALLOIA ZABALTZEA POZA LIZENTZIATUAREN KALEKO 10. ETA 14. ZENBAKIEN ARTEAN (IPARRAGUIRRE KALEA - RECALDE ZUMARKALEA)

Jende asko ibiltzen da kale horretatik (oinezkoak, umeen kotxeak, gurpil-aulkiak, etab.). Ez dira aparkalekuak kendu behar, baina beharrezkoa da, ordea, espaloia hurrengo espaloi zatiaren zabalerarekin lerrokatzea (Poza Lizentziatuaren kaleko 16. eta 18. zenbakien artean, Ercilla eta Iparraguirre kaleen artean).

Kokapena: Poza Lizentziatuaren kalea, Iparraguirre kalearen eta Recalde zumarkalearen artean

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Eremu bat da.

Auzoa: Abando-Indautxu

5. ESPALLOIAK BEHERATZEA OINAZ ZABALTZEKO ZAILAK DIREN ZABOR-EDUKIONTZIAK DAUDEN LEKUETAN

Edukiontzi berde ilun asko espaloi garaietatik hurbil daude, eta zaila da haiek oinarekin irekitzea. Askotan, adineko pertsonentzat eta ez hain adinekoentzat arriskutsua da oinaz pedala zapaltzea, espaloia altueragatik eta edukiontziarekiko distantziagatik oreka galtzeko arriskua baitago.

Kokapena: 6. barrutiko espaloiak beheratzea proposatzen da, lokalizatu eta aztertu ondoren.

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Zehaztugabetasuna

Oharra: Eskatzaileak kokapenak zehaztu zain, egoki iritiz gero.



Auzoa: Abando

6. FERNANDEZ DEL CAMPO KALEA BERDETZEA ETA EDUKIONTZIAK JARTZEA.

Concha Jeneralaren kalearen eta Hurtado de Amezaga kalearen arteko eremua berdatzea. Fernandez del Campo kaleko 1. zenbakian pairatzen ari diren izurritearen antzeko egoerak saihesteko, komeni da edukiontzia metro batzuk mugitzea Hurtado de Amezaga kalerantz. Zamalanetarako tokiaren metro batzuk okupatu beharko dira, zeinetan espaloia beheratuta baitago.

Kokapena: Fernandez del Campo 1 eta beste, Hurtado de Amezaga kalearen eta Concha Jeneralaren kalearen artean.

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Bestelako arrazoiak. Eremu gisa onartua.

EAJ-PNV UDAL-TALDEA

Auzoa: Indautxu

1. LUMINARIAK BERRIKUSTEA ETA, HALA BADAGOKIO, KONPONTZEA INDAUTXU PLAZAN

Kokapena: Indautxu plaza

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoiak: Mantentze-lanak dira.
- *Oharra: Abisua pasako zaie mantentze-lanetakoei (Zerbitzuak).*

Auzoa: Abando

2. ARGIZTAPENA HOBETZEA HURTADO DE AMEZAGA KALEAN

Dirudienez, Hurtado de Amezaga kaleko argiztapena eskasa da, eta horrek segurtasun eza eragiten die bizilagunei eta saltokiei, eta sarritan egoten dira lapurretak.

Kokapena: Hurtado de Amezaga

- Obren balorazioa: **ONARTUA**





3. ARGIAK JARTZEA URIBITARTE KALEAN, ERRANPLETAN ETA ESKAILERAN

Helburua da argitasun gehiago ematea Uribitarte kaleari, Uribitarte erranplei eta Albiatik Uribitartera doan eskailerari.

Kokapena: Uribitarte kalea eta kale mugakideak, erranplak eta Mazarredora igotzen den aldapa

- Obren balorazioa: **ONARTUA**
- OHARRA:Auzokide Planaren eremu gisa ezetsita.

4. JENDEA EGOTEKO PRESTATZEA HENAO KALEKO 25. ZENBAKIKO BARRUKO PATIOA (PUBLIKOA)

Helburua da Henao kaleko 25. zenbakiko barruko patioa jendea egoteko prestatzea. Patio hori publikoa da, eta komeni da Eskolapioak ikastetxearen inguruan bankuak eta berdeguneak dituen egoteko moduko gune bat izatea.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**
- OHARRA:Auzokide Planaren eremu gisa ezetsita.

EH BILDU UDAL-TALDEA

Auzoa: Abando

1. ARGIZTAPENA HOBETZEA ITURRIZA KALEAN

Iturriza kalea autoz betetako gune ilun bat da une honetan, eta San Frantzisko eta Indautxu-Abando arteko igarobide izateari utzi dio. Jendea kale horretatik berriz pasatu dadin, goitik behera konpondu behar da, atseginago egiteko eta argiz betetzeko. Horrela, auzoen arteko loturari lagunduko zaio.

- Obren balorazioa: **ONARTUA**
- OHARRA:Auzokide Planaren eremu gisa ezetsita.

INDAUTXUKO ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Auzoa: Abando

1. BEROAREN ETA EURIAREN AURKAKO ZUHAITZAK EDOTA TEILATUAK INSTALATZEA (MANUEL ALLENDE)

Ikusita jolastokiaren aurrean dagoen ikastetxeko zatian (Manuel Allende) eguzkiak nola jotzen duen bete-betean, argi dago itzalezko eremuak sortzeko beharra dagoela. Familiek itzal gutxi horiek borrokatzen dituzte berorik handieneko hilabeteetan, seme-alabek askaria har dezaten.

Kokapena: Manuel Allende kalea, Autonomia kalearen elkargunean





- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoa: Auzokide eremu gisa onartua.

2. LANDAREAK JARTZEA INDAUTXU ESKOLAKO JOLASTOKIKO HESIAREN ONDOAN (AUTONOMIA KALEA)

Horrela, zenbait onura lortuko dira jolastokian: kutsadura akustikoa eta atmosferikoa murriztuko dira, autoen inpaktu bisual desatsegina murriztuko da eta itzalpeko eremuak sortuko dira jolastokian. Gainera, jolastokiaren barrualdean –eta, oro har, inguruan–ingurune atseginagoa sortuko da.

Kokapena: Indautxuko Eskolako hesia, Autonomia kalerantz ematen duena.

- Obren balorazioa: **EZETSIA**
- EZ ONARTZEKO arrazoa: Auzokide eremu gisa onartua.



ONARTUTAKO JARDUKETA BAKARTUAK

6. BARRUTIA - ABANDO

AUZOKIDE PLANA 2024-2027

ABANDO

| ZENBAKIA | IZENA | DESKRIBAPENA |
|----------|---|---|
| 1 | KONPONTZEA CONCHA JENERALAREN KALEAREN LEHEN ZATIAN (PEDRO EGUILLOR PLAZATIK HASITA) KONPONDU GABE GERATU DEN GALTZADA ZATI BAT | Concha Jeneralaren lehen zatia (Pedro Eguillor plazatik hasita) |
| 2 | GALTZADA ZATI BAT KONPONTZEA PORTUKO MARKESAREN KALEAN, ARBIETO KALEAREN ETA PEDRO EGUILLOR PLAZAREN ARTEAN | Portuko Markesaren kalea, Arbieto kalearen eta Pedro Eguillor plazaren artean |
| 3 | ZOLADURA KONPONTZEA PONPA ETXEAREN INFORMAZIO-KARTELAREN AURREAN, RAMÓN DE LA SOTA KAIAN, ITSAS MUSEOAREN ONDOAN | Ponpa Etxea, Ramón de la Sota kaia |
| 4 | BEHERAGUNEA EGOKITZEA ERREKAKOETXE KALEAREN ETA CONCHA JENERALAREN KALEAREN ARTEKO ELKARGUNEAN EGOKITZEKE GERATZEN DEN BEHERAGUNE BAKARREAN | Errekakoetxe kalea, Concha Jeneralaren kalearekiko elkargunean |
| 5 | FAROLAK KALE-MAILARA JAISTEA URIBITARTE PASEALEKUAN, PÍO BAROJA PLAZAREN ETA ISLETA KALEAREN ARTEKO ZATIAN | Helburua DA fatxadetako argi-kutsadura murriztea Pío Baroja plazako eraikina 1. atariraino eta 1. atariko eraikina |
| 6 | FATXADAKO ARGIAK KALE-MAILARA JAISTEA IBAÑEZ DE BILBAO KALEAN, ALBA LORATEGIAREN ETA ZABALGUNE PLAZAREN ARTEAN | Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea. Ibañez de Bilbao kalea, Albia lorategiaren eta Zabalgune plazaren artean. |
| 7 | FATXADAKO FAROLAK KALE-MAILARA JAISTEA ASTARLOA KALEAN, COLON DE LARREATEGUI KALEAREN ETA KALE NAGUSIAREN ARTEAN | Helburua: fatxadetako argi-kutsadura murriztea. Astarloa kalea, Colon de Larreategui kalearen eta Kale Nagusiaren artean. |
| 8 | FATXADAKO FAROLA KALE-MAILARA JAISTEA COLON DE LARREATEGUI KALEAREN ETA ASTARLOA KALEAREN ARTEKO IZKINAN | Colon de Larreategui kalearen eta Astarloa kalearen arteko izkina. |
| 9 | FATXADAKO FAROLA KALE-MAILARA JAISTEA IBAÑEZ DE BILBAO KALEAN, PEDRO IBARRETXE KALEAREN ETA ACEBAL IDIGORAS KALEAREN ARTEAN | Ibañez de Bilbao kalea, Pedro Ibarretxe kalearen eta Acebal Idigoras kalearen artean. |

| | | |
|----|--|---|
| 10 | ARGIZTAPENA HOBETZEA HURTADO DE AMEZAGA KALEAN | Dirudienez, Hurtado de Amezaga kaleko argiztapena eskasa da, eta horrek segurtasun eza eragiten die bizilagunei eta saltokiei, eta sarritan egoten dira lapurretak. |
| 11 | ARGIAK JARTZEA URIBITARTE KALEAN, ERRANPLETAN ETA ESKAILERAN | Helburua da argitasun gehiago ematea Uribitarte kaleari, Uribitarte erranplei eta Albiatik Uribitartera doan eskailerari. |
| 12 | JENDEA EGOTEKO PRESTATZEA HENAO KALEKO 25. ZENBAKIKO BARRUKO PATIOA (PUBLIKOA) | Helburua da Henao kaleko 25. zenbakiko barruko patioa jendea egoteko prestatzea. Patio hori publikoa da, eta komeni da Eskolapioak ikastetxearen inguruan bankuak eta berdeguneak dituen egoteko moduko gune bat izatea. |
| 13 | ARGIZTAPENA HOBETZEA ITURRIZA KALEAN | Iturriza kalea autoz betetako gune ilun bat da une honetan, eta San Frantzisko eta Indautxu-Abando arteko igarobide izateari utzi dio. Jendea kale horretatik berriz pasatu dadin, goitik behera konpondu behar da, atseginago egiteko eta argiz betetzeko. Horrela, auzoen arteko loturari lagunduko zaio. |
| 14 | LUMINARIA ERREAK ALDATZEA ETA BI FOKU JARTZEA METROPOLITAN GIMNASIOAREN FATXADAREN LEHEN SOLAIRUKO LEIHOETAN | Foku bat jartzea fatxada apaingarriko lehen solairuko leiho karratu bakoitzaren parean, kale-edanean aritzeko eta pixa egiteko erabiltzen den eremu iluna argitzeko. Bi foku, lurrari begira, barruko fatxadaren zatia argiztatzeko. Luminaria apaingarri erreak aldatzea. |

INDAUTXU

| ZENBAKIA | IZENA | DESKRIBAPENA |
|----------|---|--|
| 15 | ITURRI BAT JARTZEA ETXANIZ SUHILTZAILEAREN PLAZAN | Inguruko ikastetxeetako haur asko, adinekoak eta anbulatorioko pazienteak elkartzen dira bertan, eta plaza pasabide ere bada. Horregatik, komeniko litzateke iturri bat jartzea. |
| 16 | PLATAFORMA EDO OINEZKOEN BABESGUNEA KENTZEA JESUSEN BIHOTZA PLAZAN | Kokapena: Jesusen Bihotza plazaren ondoko plataforma edo oinezkoen babesgunea |
| 17 | ARGI-KUTSADURA MURRIZTEA POZA LIZENTZIATUAREN KALEAN, GREGORIO DE LA REVILLA KALEAREN ETA AREILTZA DOKTOREAREN ZUMARKALEAREN ARTEAN | Poza Lizentziatuaren kalea, Areiltza Doktoarearen zumarkalearen eta Gregorio de la Revilla kalearen artean |